

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3719

1383/2022 EBAZPENA, uztailaren 28koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bitartez Fakultatibo Medikoak eta Teknikoak lanbide-taldeko Fak. Esp. Onkologia Medikoko Medikua kategorian, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetan, estatutupeko langile izateko hautaketa-probetarako epaimahai kalifikatzailea izendatu den.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 25eko 1473/2021 Ebazpenaren bidez, onartu egin dira Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutupeko lotura finkoa lortzeko 2018 eta 2019an iragarritako hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren martxoaren 10eko 855/2022 Ebazpenaren bidez, Fakultatibo Medikoak eta Teknikoak lanbide-taldeko Fak. Esp. Onkologia Medikoko Medikua kategoriaren oinarri espezifikoa onartu ziren (Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetarako).

Oinarri orokorrak onartu zituen Ebazpenaren 18. oinarrian aurreikusitakoarekin bat etorritz, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak hautaketa-probak kalifikatuko dituen epaimahaia izendatuko du.

Horiek guztiak horrela, eta indarrean dagoen legedian pertsonaleko gaietan aitortuta ditudan eskumenez baliatuta, honakoa

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Lehen aipatutako kategoriako prozesuaren epaimahai kalifikatzailea izendatzea. Epaimahai hori Ebazpen honen eranskinean agertzen diren kideek osatuko dute.

Bigarrena.— Ebazpen honek daukan egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.— Ebazpen hau EHAA-n argitaratzeko agintzea.

Laugarrena.— Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa prozesuak arautzen dituzten oinarri orokorrak onartzen dituen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 25eko 1473/2021 Ebazpenaren 21. oinarrian ezarritakoaren arabera, Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpen hau EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 28a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.

ERANSKINA

FAK. ESP. ONKOLOGIA MEDIKOKO MEDIKUA

Batzordeburua:

– Titularra: Arrieta Garmendia, Jose Maria.

– Ordezkoa: Arevalo Lobera, Sara.

Lehenengo epaimahaikidea:

– Titularra: Abad Villar, Maria Teresa.

– Ordezkoa: Mañe Martinez, Juan Manuel.

Bigarren epaimahaikidea:

– Titularra: Alvarez Lopez, Isabel Manuela.

– Ordezkoa: Muñoz Llarena, Alberto.

Hirugarren epaimahaikidea:

– Titularra: Carrera Revilla, Sergio.

– Ordezkoa: Azkona Uribeharrea, Eider.

Laugarren epaimahaikidea:

– Titularra: Ancizar Lizarraga, Nerea.

– Ordezkoa: Basterretxea Badiola, Laura.

Idazkaria:

– Titularra: Zurdo Iraeta, Oskar.

– Ordezkoa: Rodriguez Caballeira, Susana.